

Ebazpena: R026/2023

Espedientea: 53/2022

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

OAC jaunak Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazka negatiboari buruz, zeinaren helburua baita 2016-2019ko PFEZaren ordainarazpen-eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 55/2022 espedientearekin.

I. AURREKARIAK

1.- ZAEAREN datu-basean agertzen denez, OAC jaunak zerga-egoitza hauek deklaratu ditu:

a.- 2011ko irailaren 27an, zerga-egoitza aldatu zuen Torrelodonesetik (Madril) Madrilerara.

b.- 2018ko apirilaren 20an, Bilbora aldatu zuen bere egoitza.

c.- 2022ko martxoaren 31n, Pozuelo de Alarcónera (Madril) aldatu zuen egoitza.

d.- 2022ko apirilaren 19an, Pozuelo de Alarcóneko (Madril) P kalera aldatu zuen bere egoitza, eta egun horretan bertan, Pozuelo de Alarcóneko (Madril) O kalera aldatu zuen berriro.

e.- 2022ko ekainaren 22an, zerga-egoitza Pozuelo de Alarcóneko (Madril) S kalera aldatu zuen atzera.

2.- BFAn jasota dagoen zerga-helbideen historikoan, OAC jaunak 2021eko uztailaren 2ra arte izan zuen zerga-egoitza Bizkaian; une horretan aldatu zen Bilboko (Bizkaia) A kaletik Pozuelo de Alarcóneko (Madril) O kalera (alegazio hauen V. eranskina).

Zehazki, 2018ko apirilaren 20an, OAC jaunak 030 eredu aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Ogasunean. Eredu horren bidez, zerga-egoitza Getxotik (Bizkaia) Bilboko A kalera aldatu zuela jakinarazi zuen (alegazio hauen VI. eranskina).

Halaber, udal-errola Bizkaiko Foru Ogasunaren datu-basearen bidez kontsultatuta, ondorioztatzen da 2016an eta 2017an OAC jauna Bilboko R kalean egon zela erroldatuta, eta 2018., 2019. eta 2020. urteetan Bilboko A kalean (VII. eranskina).

3.- Beraz, 2016an eta 2017an zergapekoak foru-lurraldean zein lurralde erkidean aitortua zuen zerga-egoitza, eta ez zuen PFEZren autolikidaziorik aurkeztu (horrek egoitza aldatzeko jakinarazpen gisa jardungo zukeen, Ekonomia Itunaren 43.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera) bi administrazioetako batean ere. Hala ere, Bizkaian zegoen erroldatuta.

2018ko apirilaren 20tik 2022ko martxoaren 31ra, zergapekoak egoitza Bizkaian zuela adierazi zuen, eta, orduan, 2018ko eta 2019ko PFEZren ordainarazpen-eskumena, zalantzarik gabe, BFARI zegokion.

4.- BFAk zerga-egoitza egiaztatzeko prozedura bat egin zuen 2021ean, eta prozedura horretan egiaztatu zen OAC jaunak ohiko egoitza Bizkaian izan zuela.

5.- Zergapekoak 2022ko martxoaren 31n aurkeztu zituen ZAEAn epez kanpoko autolikidazioak 2017-2019ko PFEZagatik.

6.- BFAk, bere eskumena baliatuz, zergapekoak hari aitortutako datuen arabera, egiaztapen-prozedura hasi zuen, eta 2016-2019ko PFEZaren likidazio batzuekin amaitu zen, 2022ko ekainaren 6an sinatuak.

7.- 2022ko ekainaren 23an, zergapekoak gatazka negatiboa aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, 2016-2019ko PFEZ ordainarazteko eskumena bi administraziok zutela uste baitzuten. Prozedura arruntaren bidez izapidetu da, 53/2022 espediente-zenbakiarekin.

8.- Hasierako alegazioen izapidean, ZAEAk zergapekoaren egoitzari buruzko dokumentazioa baino ez du aurkeztu, Arbitraje Batzordeak baloratu dezan, eta ez du beretzat erreklamatu zergapekoaren gaineko eskumena.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan aurreikusitakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Gatazka negatiboari buruz.

1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.3 artikulua honako hau dio:

Beste kasu batzuetan, ezein administrazio bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan,

inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin.

Aurreko paragrafoaren kasuan, Arbitraje Batzordea bi administrazioetatik edozeinetara eta zergadunarengana zuzendu ahal izan da, gatazka ebazteko beharrezko diren zehaztasun eta agiri guztiak ekar ditzaten.

Gatazka, hala ere, ez da izapidetuko, non eta, zergadunari egindako komunikazioaren ondorengo bi hilabeteetan, bi administrazioetako batek eskumena onartzen ez duen.

Arbitraje Batzordeak doktrina bat eman du 8/2022 eta 18/2022 ebazpenetan. Horien arabera, transkribatutako manua gatazka negatiboaren planteamendua babestuz interpretatu behar da, baita zerga ordainarazteko eskumena bi administrazioek dutela uste denean ere.

Kasu honetan, zergapekoak eragin du helbideratze bikoitzeko egoera bat 2016 eta 2017 urteetako zentsu-aitorpenekin, eta egoera horrek ezin dio babesa eman edozein administrazioren jardunaren aurrean, aldez aurretik egiaztapen-espeditante bat ebaztearen eta egoitza aldatzearen kontura; izan ere, kontrakoa bere onurarako zabarkeriaz baliatzearen printzipioaren aurka joango litzateke.

Horrez gain, ZAEAk ez du bere eskumena erreklamatu eztabaidagai diren ekitaldiei dagokienez, eta zergapekoaren egoitzari buruzko datuak ematera mugatzen da. Datu horiek, nolana ere, BFAk egoitza fiskalari buruz emandako txostenaren zentzua berretsi baino ez lukete egingo.

Azkenik, 2017tik 2019ra bitarteko ekitaldietako PFEZaren autolikidazioak 2022an epez kanpo ZAEAn aurkezteak ez du atzeraeraginezko ondoriorik eragiten Ekonomia Itunaren 43.5 artikuluan aurreikusitakoari dagokionez.

Horren guztiaren ondorio gisa, ez dago gatazka negatibo baten aurkezpena babesten duen inguruabarrik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

- 1.- Izapidetzeko ez onartzea OAC jaunak planteatutako gatazka negatiboa.
- 2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta OAC jaunari jakinaraztea.